

noaia



**Pentsio duinen aldeko
martxa astelehenean
abiatuko da**

**Ikastola Egunaren
bueltan ekitaldi ugari
iragarri dituzte**



‘Lurra Eman’ eskultura

**“Covid-19ak jota hil direnak,
haien senitartekoak eta izurritean zehar lanean
aritu diren profesionalak omendu nahi ditugu”**

BAZKIDEEN TXOKOA

noaua! euskararen aterpe



ERRIGORAKO PRODUKTUEN
Bi saski
zozketatuko ditugu
NOAUA!ko bazkideen artean



Bazkide egiten bazara, zozketa hauetan parte hartzeko aukera 943 360 321 / elkarte@noaua.eus

Osasuntsu jaten ikasi nahi duzu?

eskura
elikadura eta dietetika aholkularitza

*Eskuran, elikadura ohiturak zure neurrira
aldatzen lagunduko dizugu!
Zatoz! Eskura gaituzu!*

*Zubiaurrenea 1 -1°C, Usurbil
Aurretikako zitarekin:
688 843 696
www.eskuradietetika.com*

HHI-EPA USURBIL HELDUEN ESKOLA

Matrikula epea

ekainaren 22tik 30era

(aldez aurretik telefonoz hitzordua eskatu 943 37 64 43- 943 36 66 08)

•HEZKUNTZA OROKORRA

(Oinarrizko kultur formakuntza: Euskara, Ingelera, Gaztelania, Irakurketa, Idazketa.

Kalkuloan hastapena eta hobekuntza. Oinarrizko informatika. Memoria lantzeko joko linguistikoak eta joko matematikoak. Natur Zientziak. Geografia. Historia eta historiarekin erlazionatutako mugimendu artistikoak...)

• DBH-ko titulua (4 hilabeteko ikastaroak)

- EUSKARA TAILERRA (MAILA 0, 1 ETA 2)
- GAZTELANIA ATZERRITARRENTZAT
- IRTEERA DIDAKTIKOAK URTEAN ZEHA



ARGIBIDEAK: 943 36 66 08

Albisteak iruditan

Otar Goxoko hanburgesa nagusitu da Gipuzkoako Txapelketan

Maiatzaren 28ko Hanburgesa-ren Nazioarteko Egunez, Egi-le Hanburgesen Gipuzkoako Txapelketa ospatu zuten Eibarren. Estreinakoz antolaturiko lehia honetan, Usurbilgo Otar Goxo saltokia nagusitu zen. Hanburgesa tradizional onenaren saria jaso zuen. Berritzaileena Donostiako Arteaga harategiak. Hanburgesa tradizionalen modalitatean, haragiak behiarena izan behar zuen, gehienez jota %20a txerriarena. Baratzuria, perrexila, arrautza eta gatza eranstea aukeran. Hanburgesa berritzaileen modalitatean aldiz, haragi nahasketa nahi bezala egin zitekeen. Epaimahaiak jakiok sukaldatu gabe eta sukaldatuta baloratu zituen. Jakion testura, zaporea eta usaina hartu zuten kontuan.

Txapelketa Gipuzkoako harakin eta harategien 'Harakinak' elkarteak eta Gi-



Otar Goxok hanburgesa tradizional onenaren saria jaso zuen maiatzaren 28an Eibarren.

puzkoako Merkataria federazioak antolatu zuten. Sari banaketan parte hartu zuten Gipuzkoako Foru Aldundiko Nekazaritzako eta Lurralde Orekako zuzen-

dari nagusi Xabier Arrutik, Harakinak Gipuzkoa elkarteak lehendakari Mikel Urrestarazuk eta Eibarko alkate Jon Iraolak.

Laburrean

Intzidentzia, murriztuz

455,58etik 325,41era murriztu da koronabirusaren intzidentzia-tasa azken astean Usurbilen. Zortzi kasu berri hauteman ditu Eusko Jaurlaritzaren Osasun Sailak udalerrri honetan. Jaitsiera orokorra izan da baita Buruntzaldean eta Gipuzkoan ere.

Matiako kafetegia

Matia fundazioa Kalezarko zaintzadun etxebizitzaren auzune berrian zabalduko duen kafetegirako kudeatzaile bila dabil. Proposamenak aurkezteko ekainaren 10era arteko epea dago. Informazio gehiagorako: arantza.machinena@matiafundazioa.eus / 696 259 565.

Zikiro-janeko txartelak

Jaietako zikiro-jana uztailaren 2an larunbata egingo da, eguerdiko 14:00etan hasita. Txartelak lehenago jarriko dira salgai: ekainaren 19an igandea, eguerdiko 12:30ean Aitzaga elkartearen, Askatasun plazan. Prezioak: Helduek, 30 euro. Ikasleek eta langabetuek, 20 euro.

noaqua

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzaldea. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaqua.eus /// www.noaqua.eus
Jendaurrako ordutegia: 10:00 - 14:00 / 16:00 - 19:00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria:
Idoia Torregarai.
Aldizkariako koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Alaitz Aizpurua.
Diseinua: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte.
Publizitatea: Beatriz Alda,
publizitatea@noaqua.eus

Banaketa: Iñaki Irazusta,
Iban Maritzalar.
Tirada: 2.930 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.

Inprimategia: Antza. Zirkuitu
Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaqua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Ainhoa Azpirotz

Kontatu didate Nueva Yorken, Broadway eta 26 karrikaren kantoian...

Gertuago etorrita, kontatu didate Usurbilen, kale nagusian, Zendoia parean bizi den herritar batek kotxea atera behar zuela garajetik, baina ezin zuela atera garajeko atearen aurrean, espaloian, beste kotxe bat zegoelako aparkatuta. Kotxe jabea Patrinen zegoela esan omen zioten eta hara abiatu zen. Bai, han egoz zela esan zioten, baina Txapartegirengana joana zela haragia erostera. Patrinetik Txapartegirengana joan eta han aurkitu omen zuen. Garajetik kotxea atera ezinik zegoela esan omen zion eta gizonak "A! Gaizki al dago ba?" galdetu omen zion batera larritu eta estutu gabe.

Kontatu didate beste batean Kalezarko herritar batek Kontzeju Txiki ondoan utzi zuela kotxea farmaziara joateko, piboteak dauden lekuan, beste kotxe batzuk ateratzea oztopatuz. Han erosi behar zuena erosi eta etxera joan omen zen oinez. Handik denbora puska batera udaltzainak joan omen zitzaizkion etxera kotxea non zuen galdezka. "Kotxea? Garajea". Ez zen gogoratu ere egiten Kon-

Kotxe-grazia



"Beraingatik balitz, farmaziaraino, tabernako barraraino, jatetxeko sukalderaino, harategiko mostradoreraino eta itsaso barruraino joango lirateke kotxearekin".

AINHOA AZPIROTZ

"Kotxe jabe horiengan jarrera bat nabarmentzen da: nagusikeria, utzikeria, berekoikeria, ezer inportarik eza, axolagabekeria, besteekiko errespetu falta... Kalea kotxeena da"

tzeju ondoan utzi zuela, gaizki aparkatuta, piboteen ondoan.

Kontatu didate orain dela gutxi Bordaxoko errotondan Mercedes haundi bat zegoela erdiko borobilaren inguruan dagoen berdearen gainean aparkatuta. Autobusa pasa ezinik omen zegoen, kateatuta, ez aurrera, ez atzera. Eta haren atzetik zeuden kotxeak ere geldituta, ilaran. Erroton-

dako beste hiru sarbideetako kotxeak ere berdin. Denak geldituta, bozina jo eta jo. Eta Mercedes haundiaren jabea ageri ez. Halako batean han azaldu omen zen tabernatik lasai-lasai. Kotxea hartu eta mugitu zuenean pasa ahal izan zuten autobusak eta atzetik gainerako autoek.

Kontatu didate Mercedes haundi hura bera taxistaren lekuan aparkatuta ikusi zutela ondoren.

Kontatu didate Lekeitioko hondartzako aparkalekuan gizon batek bigarren ilaran utzi zuela kotxea, beste pare bat kotxeri ateratzea galara-ziz. Papertxo batean bere telefono zenbakia idatzita utzi eta hondartzara jaitsi omen zen. Handik gutxira ertzainak etorri eta telefonora deitu omen zioten. Hondartzatik kotxera bueltatu eta ertzai-

nek isuna jarri zioten. Behin isuna jarrita ertzainak joan egin omen ziren eta gizona, berriro ere telefono zenbakidun papertxoak kotxea kristalean utzi, eta hondartzara jaitsi omen zen, kotxea mugitu ere egin gabe, lehen bezala bigarren ilaran utziz beste batzuei ateratzea galara-ziz.

Kontatzen dizkigutenean, grazia egiten duten istorioak izan daitezke. Baina kontakizuneko kalitetuei ez zien batera grazia-rik egingo. Garajetik kotxea atera ezinik zegoenarentzat edo autobus gidariarentzat ez ziren batera une lasaiak eta barrerariak izango. Emotikono bat baino gehiago jartzeko moduko egoerak eta emozioak sorrarazten dituzte: harridura, haserrea, inpotentzia, sinetsi ezina, negargurea, tonto aurpegia... Kotxe jabeengan, berriz, jarrera bat nabarmentzen da: nagusikeria, utzikeria, berekoikeria, ezer inportarik eza, axolagabekeria, besteekiko errespetu falta... Kalea kotxeena da. Beraingatik balitz, farmaziaraino, tabernako barraraino, jatetxeko sukalderaino, harategiko mostradoreraino eta itsaso barruraino joango lirateke kotxearekin.

Alazne Arruti Bengoetxea

Ainhoa Azpirotz Eizmendi

Ugaitz Agirre Zapirain

Luis Aranalde



Pentsio duinen aldeko martxa

Euskal Herriko Pentsio-dunen Mugimenduak Usurbil zeharkatuko duen lehen bizikleta martxa iragarri du ekainaren 13tik 25era. Udaberrian Potxoenean egindako bileretan ekin zieten antolaketa lanen emaitza da. “Bertan “1080 euroko Gutxieneko Pentsioaren aldarrikapena, zerbitzu publikoen defentsa eta zainketa partekatua lana nabarmendu nahi ditugu”. Ildo berean, “Gasteizko eta Iruñeko Gobernuak eskatzen diegu 2023ko aurrekontuetan 1080 euroko osagarria sartzeko, estatuko gobernuak gutxieneko pentsio hori erabakitzen duen bitartean”.

Parte hartzeko deia

52 hilabeteko borroka erakutsi die antolatzaleei, “gure aldarrikapenak lortzeko bermerik onena mobilizazioa dela”. Horregatik, “herriar guztiei dei egiten diegu Bizikleta Martxa igarotzen den herrietan modu aktiboan parte har dezaten egiten diren ekitaldietan”. Bai bizikleta martxan zehar,



Antolatzaleek iragan astean Donostian eginiko agerraldia.

BIZIKLETA MARTXA

“Gure aldarrikapenak lortzeko bermerik onena mobilizazioa da”

baita martxaren amaierako manifestazioan ere. Abiapuntuaren leku berean, Donostian egingo dute, ekainaren 25ean, eguerdiko 12:00etan Alderdi Ederetik abiatuta.

Ekainaren 13an, Usurbilen

“Euskal Herriko eskualde

guztiak zeharkatuko ditugu”. Ekainaren 13ko lehen etapak Donostia izango du abiapuntu eta Azpeitia helmuga. Gipuzkoako hiriburutik Lasarte-Oriara joko dute partaideek eta 10:45 aldera hipodromoko etorbideetik barneratuko dira Zubietan. Handik Santuenera joko dute eta gero Kaxko aldera. 11:15ak alderako espero dira. Gero N-634 errepidean sartu eta errepide beretik zeharkatuko dute Aginaga eta Oriorantz segiko dute.

Aztarrikatik

Belartzarako deia

“Belartzako Decathlonek auto-ordainketa kutxan, euskaraz ordainketa burutzeko aukera kendu du; beste behin ere euskaraz bizi nahi dugunon hizkuntza eskubideak urratuz”, berri eman du Aztarrika Gazte Asanbladak. Euren esanetan, “erabaki hau ez da kasualitate hutsa, euskararen aurkako eraso da”. Eta ez kasu isolatua, “inposizio desberdinen bitartez euskara marjinalizatzeke estrategian urratsak etengabeak izaten ari dira: euskara sektore ezberdinetatik erasotuz”. Gazte asanbladatik aldarrikatzen dutenez, “euskaldunok harrotasunez eta konplexurik gabe gure hizkuntza defendatu eta erabili behar dugu”. Belartzako saltokian gertatzen ari denari erantzuteko, ostegun honetan, ekainaren 9an, arratsaldeko 17:30ean Decathlonera joateko deia egin dute. “Bete dezagun erreklamazio orriz haien bulegoa!”, luzatu dute gonbita sare sozialen bidez.

Ika-mika

Tuzididesen tranpa

Tuzididesen tranpa, Graham Allison politologo estatubatuarak 2015. ean sortutako kontzeptua da. Atenasen eta Espartaren arteko gatazkari egiten dio erreferentzia —Tuzididesek Peloponesoko Gerren Historia obran azaldua— gainbehera doan potentzia hegemonikoaren (Esparta-Estatu Batuak-Europa-Mendebaldea) eta igoeran datorrenaren (Atenas-Txinak-Errusia) artean sortzen den dilema adierazteko.

Estatu Batuek ari garenean, Mendebaldeak ari gara, gaur egungo Europa barne, eta horien atzean, “elite ekonomikoak

multzo bat, erabakiak hartzen dituztenak eta goian aipatutako testuinguruan, beraien burua mehatxatuta, eta azken hamarkadetakotako botere hegemonikoa galtzeko arriskuan sentitzen direnak.

Azken bi urteotan jasaten ari garen gertakariak “elite ekonomiko” horiek dituzte protagonista, eta bi erronken aurrean jartzen gaituzte. Lehena, zer gertatzen ari den ulertzea. Honetan lantzeko asmoz, Adrián Zelaia-ekin “Mundua bidegurutzean” gaia lantzeko hitzaldia antolatuko dugu ekainaren 13an, astelehena, 18:30etan, Udarregi ikastolako jangela. Eta bigarrena,

gure bizitzaren gain daukagun kontrola berreskuratzea da. Helburu horrekin, “Aurrera Gttunk” proiektua jarri dugu martxan, 6 lantaldetan egituratua. 1. Elikadura. 2. Energia. 3. Ura. 4. Osasuna. 5. Hezkuntza eta 6. Kultura. Usurbilgo eta Eskualdeko edozein pertsona eman dezake izena lantalde horietan, aurreragttunk@protonmail.com posta elektronikoen bidez.

Gaur egun, une historiko erabakigarri hau bizi dugu, hurrengo belaunaldiaren etorkizunerako garrantzi handikoa izango dena. Gainera, azken bi urteetan jasan ditugun gertaerek gure sinesmen sistemak aldarazi dizkigute eta

beraz, gure bizitza gidatzeko oinarri izan ditugun printzipio gidariak, kolokan dauzkagu.

Duela egun batzuk utopikoa iruditzen zitzaiguna, orain, gure buruak, haren bideragarritasuna ikusarazten digu, eta Bizitza, printzipio ekonomiko kapitalista eta patriarkalen gainetik jartzeko beharraz pentsarazten gaitu. Hurrengo belaunaldiei begira beraz, berezkoak ditugun eta Herri gisa definitzen gaituzten kultura-balioetatik abiatuta, gizartea birformulatzeko aukera ezin hobea aurkeztu zaigu.

Aurrera Gttunk,

Bizitza-Usurbil

Leire Arregi: “Selektibitatea amaitu nuenean, ez neukan oso argi zer egin nahi nuen”

Ikasketek eraman zuten Bartzelonara Leire Arregi usurbildarra. Modak liluratuta joan zen bertara eta ikasketak amaitzeaz da. NOAUA!rekin partekatu ditu esperientziak eta etorkizuneko asmoak.

NOAUA! Zerk eraman zaitu Bartzelonara?

Leire Arregi: Selektibitatea amaitu nuenean, ez neukan oso argi zer egin nahi nuen. Gustukoen izan nitzakeen horiek buruan nituen, eta azkenean magisteritzari heldu nion eta Goi Mailako ziklo batean sartu nintzen. Bi hilabete iraun nituen horretan, eta utzi egin nuen. Inflexio puntu batean nengoela, inguruko jende asko hasi zitzaidan esaten modaren arlo horretan irudikatzen nindutela. Ideia ona iruditu zitzaidan eta esparru horri lotuta neuzkan aukerak begiratzeari ekin nion. Urtebeteko tartea neukan erabakia lasai hartzeko. Uste dut oso garrantzitsua dela denbora hartzea noranzko egokiak hartu eta behar bezala pentsatzeko. Nazkatuta nengoen ikasteaz eta orduak aulki batean eserita egoteaz. Lehengusu eta amaren eskutik joan nintzen Bartzelonara eta unibertsitate bat ikusi genuen. Izugarri gstatu zitzaidan han-



Bartzelonan ari da moda diseinua ikasten. “Ikasketak amaitzen ari naiz eta oso pozik nago”, adierazi digunez.

LEIRE ARREGI

“Unibertsitatean, lehen bi urteetan derrigorrez moda diseinua ikasi behar da eta ondoren espezialitate bat aukeratu behar da”

go eskaintza eta bide hori hartu nuen.

Zer dira moda ikasketak?

Moda diseinua ikasten hasi nintzen. Unibertsitatean, lehen bi urteetan derrigorrez moda diseinua ikasi behar da eta ondoren, espezialitate bat

aukeratu behar da. Estilismoa gustatzen zitzaidan, batez ere, baina irakasleek diseinuaren aldeko apustua egitea gomendatu zidaten. Beraz, haien gomendioari jarraitu nion eta diseinuarekin jarraitu nuen. Hasi bezain pronto konturatu nintzen hori ez zela nire bidea, ezin nuela horrekin, gehiegizkoa zen. Segurtasun falta handia neukan eta segituan konturatu nintzen hori ez zela nire bidea.

Duela hiru urte, nire urtebetetze egunean (otsailaren 5ean), erabaki nuen ez nengoela gustura egiten ari nintzenarekin eta zerbait aldatu egin behar nuela. Estilismoarekin jarraitzea erabaki nuen, orduan. Orain oso gustura nago, erabaki egokia hartu nuen. Ikasketak amaitzen ari naiz eta oso pozik nago.

‘Tokitan’ atala

NOAUA!n zabaldu dugun atal berri honi ‘Tokitan’ izena ipini diogu. Atzerrian bizi diren usurbildar gehiago elkarrizketatu nahi ditugu txoko honetan. Egoera horretan den herritarren bat eza gutzen baduzu, bidali bere izena gure posta helbidera: erredakzioa@noaua.eus

“Nire sormen lan guztia erakusten ari naiz”

NOAUA! Praktikak egiten ari zara edo eginak al dituzu da-goieneko?

Leire Arregi: Bai, egin nituen. Estilista batekin hasi nintzen lanean, publizitatean aritu gara: Pepsi, Lay’s... oso polita iruditu zitzaidan,

eta gainera, talde lanean egiten diren proiektuak dira. Diseinuaren arloa oso indibiduala da eta nik talde baten beharra neukan. Orain ikasketak amaitzen ari naiz, eta gai bat hartu behar nuen. Nik arreta gabezia daukat eta kri-

tika sozial bat egiten ari naiz. 12 urterekin diagnostikatu zidaten arreta gabezia eta pilulapean bizi izan nintzen 18 urte arte. Urte horietan sormen gaitasuna kendu zidaten eta orain horren aurkako borrokan ari naiz kritika soziala-

ren bidez.

Egunerokotasunean ez da pilula bat hartzeko beharrik. Behin utzi nituenean segurtasun falta handia sentitu nuen, eta orain, nire sormen guztia erakusten ari naiz lan honen bitartez.

“Sarri, kanpoan zaudela konturatzen zara etxean zer daukazun: Usurbilen baino hobeto inon ere ez”

NOAUA! Katalunian ikasketa gehienak katalanez izaten dira. Zure kasuan ere hala al da?

Leire Arregi: Nire ikasketak nazioartekoak dira, eta beraz, ez dira katalanez. Leku askotako jendea dago eta bi aukera ematen dituzte, gazteleraz egitea edota ingelesez egitea. Irakasleak katalanak dira eta ikasle katalanei aukera ematen diete lanak katalanez egiteko ere. Ez dago arazorik horrekin.

Zure kontutik katalana ikasten ari zara edo ez duzu jakiteko beharrik sentitzen?

Beharra badago eta lanerako katalana jakitea beharrezkoa da. Ni orain pisuan bizi naiz eta nire pisukideetako bat getariarra da, eta beraz, euskaraz hitz egiten dugu etxean bion artean. Beste pisukidea erdalduna da eta gazteleraz egiten dugu berarekin. Unibertsitateko lagun askok katalanez hitz egiten dute eta ulertzen diet, baina nik ez dut hitz egiten.

Nazioarteko jendea ezagutzeko aukera ere izan duzu?

Bai, batzuk ezagutzeko aukera izan dut. Kulturalki oso ezberdina den jendea aurkitu dut, batez ere, eta katalanekin egoten naiz gehien edo euskaldunekin. Etxetik kanpo zaudenean, askotan sentitzen duzu beharra etxean bezala sentitzeko.

Katalanekin ondo moldatzen al zara?

Harremanak oso ezberdinak dira, oso itxiak dira. Asko kostatzen da lagun taldeetan sartzen. Kuadrilakoei beti esaten diet zorte handia daukagula, askotan ekartzen ditugulako lagun berriak gure artera, baina hori hemen ez



“Pixkanaka Bartzelonara egiten da gorputza”, adierazi digu Leire Arregik.

LEIRE ARREGI

“Lehen urtea gogorra izan zen niretzat. Bigarren urtean ikasle egoitza batean egon nintzen eta oso esperientzia ona izan zen”

da gertatzen. Halakorik egiten badute, ordea, oso eskertzekoa da. Sarri kanpoan zaudela konturatzen zara etxean zer daukazun: Usurbilen baino hobeto inon ere ez. Usurbilgo

gazteok daukagun harremana beste inon ez dago.

Bartzelona hiri handia da. Usurbil bezalako herri txiki batetik aterata, erraza al da horrelako hiri batera ohitzen?

Lehenengo urtea oso gogorra izan zen niretzat. Herri txiki batetik hiri handi batera pasatzean, konfidantzaz jokatzeko duzu, herrian egingo zenukeen bezala eta errealtatearekin topo egiten duzu. Hori gogorra izan zen niretzat. Bigarren urtean, ikasle

egoitza batean egon nintzen eta oso esperientzia ona bizi izan nuen. Urte onenak bertan pasatu nituen. Pixkanaka Bartzelonara egiten da gorputza. Usurbila itzultzen naizenean, ahaztu egiten zait Bartzelonan bizi naizela, eta itzultzean berriz ere txip hori aldatu egin behar da. Momentu txarrak pasatzean, pisukideak beti esaten dit aprobetxatu egin behar dugula bi lekutan egoteko aukera izateaz, jende askok ez baitauka aukera hori.

“Asko kostatu zait egokitzea eta momentuz hemen geratzeko asmoa daukat”

NOAUA! Euskal Herrian ba al dago estilismotik bizitzeko aukerarik?

Leire Arregi: Beltz ikusten ditut gauzak orain. Etxera ez naiz itzuliko berehalakoan. Bost urte daramatzat hemen

eta asko kostatu zait kontaktatuak egiten, arlo honetan kontaktatuak oso garrantzitsuak dira. Asko kostata lortutako lana izan da eta momentuz hemen geratzeko asmoa daukat. Beste nonbait aukerarik suer-

tatzen bada lan egin ahal izateko bertara joango naiz.

Madrilera joan behar badut hara joango naiz, A Coruña bada, ba bertara, eta Berlin edo Londres bada, hara ere bai.

Ohitura zaharrari eutsiz: San Juan!

San Juan jaiak gainean zirela eta, **Kalezarren** dena prestatzen ari ziren udari ongiatorria emateko duela 25 urte. Lau egunetarako jaiak iristear ziren ekintzaz beteta, eta kalezartarrak irrika bizian zeuden.


Hala ere, hilabete hasieran izandako uholde gogorren kalteak neurtu berri zituzten eta aurre egiteko plan bat pres-

tatzen ari ziren. 1.400 milioi pezetako kalteak sortu zituzten uholdeek, gehien bat eremu publikoan, baina baita eremu pribatuan ere. Berri onik ere bazen herrian, asko borrokatu ondoren, **UEMA**n sartuta baitzegoen jada Usurbil.

Herriko hainbat baserritarrek Donostian egin zuten manifestazioan parte hartu zuten, **Bre-txatik** bota nahi baitzituzten,

eta bertan, baserritar guztientzat lekurik izango ez zela eta, beste norabaitera joan beharko zuten barazkiak saltzera.

Frontoiko obrak ere abiaduraz bizian zihoazen aurrera, eta eserlekuekin zer egin erabaki behar zuten, zaharrak mantendu ala berriak jarri. Frontoian jarraituta, **Pilota Astea** antolatuta zuten ekainaren 26tik 29ra.



1997ko ekainaren 13ko portada.

Duela 25 urte

NOAUA! 22. zenbakia 1997ko ekainaren 13an

“Iparraldean errebote talde on ugari dago”

27 urte ditu zubietar peto honek, eta horrela delako, zubietartzat besterik ez du bere burua. Erreboteko jokalaria eta entrenatzailea, katuak oso gustukoak dituela aitortu digu.

NOAUA! Enpresa ikasketak eginak omen dituzu.

Mikel Bengoetxea Iparragirre: Bai, 1993an bukatu nituen ikasketak. Nahiko ongi joan zitzaidan. Behintzat, ekainean nire promozioarekin batera lizentziatu nintzen.

Lana segituan aurkitu al zenuen?

Bai, lan desberdinetan ibili ondoren, eta curriculumak bidali ondoren, Banco Guipuzcoano-n hartu ninduten, eta harrezkerotik bertan nabili. Horretan, behintzat, ez daukat kexatzerik.

Une honetan non zabilta?

Banco Guipuzcoanoren egoitza ezberdinetan egon naiz lanean: Pasaian, Erreterian, Andoainen, Usurbilen, Her-

nanin eta gaur egun Urnietan nago.

Ikasi duzuna aplikagarri al zaitzu lanean?

Bai, asko. Horretan ere zortea izan dut.

Zein da zehazki zure kargua?

Urnietako hau egoitza berria da, eta bertan, bi pertsona gauda, ez da oso handia. Une honetan bertako zuzendaria naiz. Kredituez, jendearekin hitz egiteaz... Arduratzen naiz.

Hain gaztea eta zuzendari?

Bai, baina ez dut pentsatzen bizitza osoa lan honetan jarraitzea. Asko “erretzen” du. Hori gertatu zaie, behintzat, aurretik egon direnei.

Kreditu bat eskatu eta ezezkoa ematea zaila al da?

Horretara ere ohitu egiten da pertsona, baina batzuetan bai. Oso gogorra egiten da kreditua nahi eta ezetz esatea.

Errebotean ere ibili omen zara.

Bai, jokatzearaz gain, txikien

taldeak ere entrenatzen ditut. Zubietako Pilota Elkarteko zuzendaria ere banaiz. Ikusten den bezala, titulu asko ditut, baina hortik aurrera...

Zer-nolako maila dago Zubietan?

Ez dut esango punta-puntako jokalaria garenik, baina ezta txarrenak ere. Erdialdean egongo gara. Jokalari moduan ere, berdina esan dezaket.

Zein da une honetan, erreboteko talderik sendoena?

Baionakoa, baina Iparraldean talde on ugari dago. Azken partiduan Baionakoek nahikoa abantaila ateratu zuten. Nabarmena da Iparraldeko taldeen nagusitasuna.

Zuen entrenamenduak ikustera jenderik joaten al da?

Ez gehiegi. Gogoratzen naiz behin autobus bete japoniar etorri zela gu ikustera, kamara eta guzti, noski. Bestetik, inguruko pertsonak ere ez du errebotea ezagutzen, nahiz eta gertu-gertu eduki kirol ikusgarri honetaz



Mikel Bengoetxea Iparragirre.

gehiago jakiteko aukera. Errebotea bultzatzeko bazkidetza kanpaina bati ekitea erabaki dugu Elkartetik.

Lagunekin eta ondo pasatzera nora joaten zara gehiago, Usurbil edo Lasartera?

Biak konbinatzen ditut, horretan ez dago arazorik.

Etxean geratzen zarenean, berriz, lagun berezia daukazu bertan, ezta?

Bai. Katu bat daukagu etxean, siamesa. Ez dauka izenik, baina ederki moldatzen gara. Askok gustatzen zaizkit katuak.

Covid-19ak hildakoen oroimen gunea zabalik

Zain dezagun maite duguna. Ingurumena, bizitza, komunitatea. Covid19-ak hildakoen omenez. Hala irakur daiteke Usurbilgo Udalak Bizkarreko parkean ezarria duen plakan. Koronabirusak hildakoak oroitzeko gunea egokitu du bertan.

Iragan larunbatean izan zen “irekiera” ekitaldia. Jokin Eizagirre Sagardia herritarrek ondutako ‘Lurra eman’ eskultura inauguratu zuten. Sortzaileak berak adierazi zuenez, “hemen ikusten duguna da pertsona bat lurperatzen ari dela eta bere azken arnasean arbolek sortzen duten oxigenoaren bila bizitzari heldu nahian dagoela”. Hortxe, ‘Lurra Eman’ izeneko eskulturarekin adierazi nahi izan duena. Eskerrak helarazi nahi izan zizkion Udalari, halako sortze lan bat egiteko aukera emateagatik eta baita udal langileei ere eskainitako laguntzagatik.

“Ez dezagun ahantzi gertatzen ari zaiguna”

“Oroitzapenaren eta elkartasunaren gunea izatea nahiko genuke, baina oroz gain, itxaropenerako gunea izateko bokazioz sortu da. Ez dezagun ahantzi gertatzen ari zaiguna”, Usurbilgo Udaletik ekitaldian zehar adierazi zuten. 2.049 herritarrei eragin die koronabirusak datu ofizialen arabera eta 8 hildako eragin ditu gu-



Lurperatze unean, azken arnasean, bi esku bizitzari heldu nahian. Jokin Eizagirreren eskultura Bizkarren ipini dute.

BIZKARREKO PARKEAN

“Mundua ezagutzeko eta aldatzeko gizakiaren tresnak dira eskuak. Erabil ditzagun mundu hobeago bat eraikitzeko”

txienez Usurbilen. “Hildakoak ez ezik haien senitartekoak eta izurritean hainbat eta hainbat arlotan lan egiten duten profesionalak, herrikideak ere omendu nahi ditugu”.

Mundu hobeago eraikitzeko

Asko hil dira osasun krisialdi honetan zehar ezarri diren murrizketa latzen eraginez, “bakardadean” Udaletik gogorazari dutenez, “bai Covidaren

ondorioz hil direnak bai beste arrazoi batengatik zendu direnak” ere. Hildako hauen azken agurrak ere “hilabete askotan zehar, hileta errituak aldatu eta murriztu egin ziren eta kasu askotan bereziki Covid-19a gaixotasuna zuten gaixoetan ez da agur esateko aukerarik izan. Hutsunea besterik ez da egon, maite genituen pertsonen agur esatea, oztopoz betetako bidea izan da, hurbiltasunik gabekoa, senitartekoak ezin izan dira azken une horietan bidelagun izan, ezin izan dute gaixoarekin hurbil egon eta ezin ondorioz, azken agur normala egin. Horrek ondorengo dolua zailago egiten du. Izan ere maite dugun pertsona, inor laztandu gabe eta sufrimendu artean joan dela sentitzeak do-

lua zailtzen du eta erruduntasun sentsazioa indartu”.

Testuinguru honetan, “min hori arintzen laguntzeko arduratu izan dugu maiz, zor moduko bat. Horregatik, trantze mingarri hori pairatu behar izan duten herrikideei, gure babesa eta maitasuna eskaintzeko helburuz antolatu dugu ekitaldi hau, eta paratu dugu Bizkarreko parke zoragarri honetan, Jokin Eizagirre herriko sortzaileak egindako artelan hau”. Bi esku. “Mundua ezagutzeko eta aldatzeko gizakiaren tresnak dira eskuak. Erabil ditzagun mundu hobeago bat eraikitzeko. Zizelka ditzagun irakaspenok gure oroimen kolektiboan, gure ondorengoek berriz halakorik bizi beharrik ez dezaten”.



Orbeldi dantza taldekoek eman zioten hasiera ekitaldiari.



Yolanda Arrietaren errezitaldia, Zumarteko musikariek girotua.

Unai Sagarzazu: “Ironman bat egitea gustatuko litzaidake hemendik urte batzuetara”

Unai Sagarzazuk triatloiak egiten ditu. Gaztetatik onenen pare ibili da Gipuzkoa eta Euskadi mailan. Hain gogorra den kirol jarduerari buruzko xehetasun jakingarri ugari eskaini dizkigu.

NOAUA! Triatloia oso gogorra da. Denbora eta energia asko eskatzen du. Astero, zenbateratan entrenatzen duzu batzuek?

Unai Sagarzazu: Berez, egunero entrenatzen dugu, asteko zazpi egunetan. Goiz eta arratsalde izaten da. Alegia, goizetan entrenamendu bat egiten dugu eta ondoren, eguerdi arratsalde edo iluntze aldera, beste entrenamendu bat egiten dugu. A- tsenden egunak ere egiten ditut edo egunean behin entrena- tzen dudana, baina orokorrean, esango nuke batzuek beste zazpi egunetan entrenatzen dudala, bai.

Igeriketan, korrika eta bizi- kleta ganean. Triatleta batek hiru jarduera horiek osatu be- har izaten ditu. Zein da eroso- na egiten zaizuna eta zein da hobetu beharko zenukeena?

Berez, erosoan igeriketan sentitzen naiz. Diziplina horretatik nator, ibilbide luze- ko txapelketak egiten nituen



“Esango nuke batzuek beste asteko zazpi egunetan entrenatzen dudala”.

UNAI SAGARZAZU

“Eroso sentitzen naiz uretan, baina azken urteetan bizikletan dezente ibili naiz eta asko hobetu dut”

lehen. Eroso sentitzen naiz uretan, baina azken urteetan bizikletan dezente ibili naiz eta asko hobetu dut. Oraintxe, gehien disfrutatzen dudana eta erosoan sentitzen naizena bizi- kleta dela esango nuke. Hobet- zeko korrika daukat, saiatzen

naizenero pixka bat hobetzen, kilometrotxo batzuk gehitzen edo denbora luzatzen, beti le- sionatu egiten naiz. Nik uste topera edo puntu batera iritsi naizela non gehiago ezin dudana aurrera egin.

Zu ari zaren mailan aritzeko, asko zaindu beharko da.

Urtean zehar, udaberri hasie- ratik udazken erdialdera arte izaten ditugu txapelketak, eta festa gehienak bitarte horretan izaten dira. Parranda batzuk egiten ditut txapelketarik ez

dudan asteetan, baina beste asteburu batzuetan ez. Entre- natzen eta lehiaketetan buru belarri sartuta, gorputzak ez dit inoiz gehiegi parranda egi- terik eskatu. Ez naiz inoiz oso parrandazalea izan, eta ne- katuta nagoenean, gorputzari kasu egiten diot eta ez naiz ateratzen parrandan. Txapel- keta batzuk izateko, beste hiri batzuetara joaten gara, eta txapelketan askatuko du- gun tentsio hori bota eta gero batzuetan festa pixka bat egi- tera ateratzen gara.

“Umetatik egin izan dut igeri”

NOAUA! Pandemiak zein neu- rritan baldintzatu du zure ki- rol jarduera?

Unai Sagarzazu: Pandemia hasi zenean, besoa hautsita neukan bizikletarekin izandako istripu baten ondorioz. Pandemiak eztanda egin baino hiru hila- bete lehenago, eskaiola jarrita nengoen eta ez zuen eragin handirik izan nigan. Ez neu- kan aukerarik ezer askorik egi-

teko. Behin kalera ateratzen hasi ginenean, txapelketa guztiak bertan behera utziak zeuden eta asmorik ere ez zeukaten ezer antolatzeke. Egoera ez zegoen oso argi eta dena airean geratu zen. Aurten egoera nahiko lasai- tu da eta esperientzia hartu dute probak antolatzen dituztenek, eta orain antolatzailerik argiago dute nola egin. Ziur egingo diren probak ere badaude aurtengo-

rako aurreikusita.

Beste kirol jarduera batzuetan ere arituko zinen txikitan. Noiz hasi zinen triatloia serio har- tzen?

Txikitan futbola eta eskuba- loia egiten nituen beste askok bezala. Egia da umetatik igeri egin izan dudala. Gurasoekin edo lagunekin joaten nin- tzen igeri egitera. Futbola utzi

eta neure kabuz igeri egitera joaten hasi nintzen. Banuen lagun bat triatloian ibiltzen zena, eta nik uste hark harra- patu ninduela. Bizikleta bat erosi eta harekin hasi nintzen korrika mendira joaten ere. Duela sei bat urte hemengo Baxurde Txiki triatloi taldean izena eman nuen eta pare bat urte bertan egin nituen. Orain beste talde batean nago.

“Epe laburrera osasuntsu mantentzea da nire helburu nagusia”

NOAUA! 2018an Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketa izan zinen Sprint modalitatean, 23 urte azpiko mailan. Epe erdiera, zein da zure helburua?

Unai Sagarzazu: Oraintxe bertan ez daukat helburu jakinik postuei dagokienean, inoiz ez nuen uste hona iritsiko nintzenik. Hobby modura hasi nintzen eta berehala ikusi nuen asko gustatzen zitzaidala eta emaitza onak lortzen nituela.

Euskadiko selekzioarekin ere ibili naiz eta Iruñeko lehen mailako talde batean aritzeko ere aukera izan dut azken urtean. Espainiako txapelketan aritu naiz elite mailan eta taldekako txapelketa garrantzitsuenetan ere izan naiz. Joan zen urtean taldekako lehen mailako Espainiako triatloi txapelketa irabazi genuen A Coruña. Sekula ez nuen pentsatu honaino iritsiko nintzenik eta hemendik aurrera ere datorrena ongi etorria izango da.

Ez daukat helburu jakinik, baina epe laburrera osasuntsu mantentzea da asmoa. Azken bi urteotan lesio ugari izan ditut eta gorputzaren seinaleak igartzen ari naiz. Epe luzera begiz jota daukat distantzia luzeagoak egitea; Ironman bat egitea gustatuko litzaidake hemendik urte batzuetara.

Lehiakortasun handia dago triatloi txapelketetan ala, alde-rantziz, lagun giroan lehiatzen al duzue?

Ni nabilen mailan, txapelketetan giro ona dago. Hala ere, uste dut triatloia dela ezagutzen dudako kirolari lehiakorraren. Azken finean, berez bakarkako kirola da, baina ez da atletismoa edo igeriketa bezala non zure marka den garrantzitsua eta bakoitzak bere bidea edo erreia duen lehiaketan.



“Hobby modura hasi nintzen eta laster ikusi nuen asko gustatzen zitzaidala”.

UNAI SAGARZAZU

“Ez naiz oso lehiakorra ikusten. Garrantzia prozesuari ematen diot eta ez lehiaketako postuari”

Triatloian jendearekin kontaktuan zaude eta lehia an-

tzematen da. Ni ez naiz oso lehiakorra ikusten, garrantzia prozesuari ematen diot eta ez lehiaketako postuari.

Jende oso lehiakorra ikusten dut, ordea, igeriketan kolpeak ematen dituen edo bizikletan zikinkerian aritzen dena. Behin hori bukatuta, kirol gehienetan izango den bezala,

giroa lagunartekoa da, baina momentuan tentsio handia izaten da.

Usurbil bezalako herri batek badu atletismoan aritzeko azpiegitura nahikorik?

Triatloia hiru kirol dira, eta beraz, banaka hartuko ditut erantzun osoago bat emateko. Lehenengo, igeriketa aztertuta, Usurbilen badugu igerilekua eta beraz, edonor aritu daiteke bertan. Azken urteetan proposamenak luzatu ditut igerilekua hobetzeko. Batzuetan jaramon egin didate eta besteez, baina azken urteetan Gipuzkoako igerileku askotan izan naiz eta kaskarrena Usurbilekoa dela esango nuke. Hala ere, herri askok ez dute igerilekurik eta guk badugu gurea, beraz, alde horretatik ondo.

Bizikletan ibiltzeko errepidea edo bide egokia baino ez da behar, eta hori ere badugu.

Korrika, berriz, faltan botatzen dut atletismo pista bat gertuago izatea. Ni Hernanira joaten naiz, Lasarte-Oria pista erdia baino ez baitago. Dena den, Usurbilen bide asko dauka korrika egin ahal izateko, dela Txokoaldekoa, dela Zubietakoa. Beraz, alde horretatik ere ondo.

Laburrean

“Oporretarako toki bat? Kanariar uharteak”

1. Zenbaki bat.
22.

2. Kolore bat.
Beltza.

3. Kirolari bat.
Michael Phelps.

4. Plaza bat hautatu ezazu.
Lekeitioko triatloia.

5. Pelikula bat edo telesail bat.
Dexter.

6. Liburu bat.
Cien años de soledad
(Gabriel Garcia Marquez).

7. Abesti bat.
Chop Suey (System of a Down).

8. Sare sozial bat.

Twitter.

9. Usurbilgo txoko bat?
Kaxkoa.

10. Santixabelak ala Sagardo Eguna?
Sagardo Eguna.

11. Oporretarako toki bat?
Kanariar uharteak.

“Uxue Traileko izen-ematea 300 lasterkarientzat ireki beharrean, 500entzat zabaldu dugu”

Hilaren 18an egingo dute II. Uxue Trail lasterketa. Pandemia aurretik egin zuten lehenengo edizioa eta izandako harrera zabalaren ondorioz, aurtengo bigarren edizioa egingo dute. Lasterketa solidario honen bidez, Uxue Martin gazteak duen gaixotasunari, Pheland-McDermid gaixotasunari ikusgarritasuna eman eta dirua lortu nahi dute ikerketa lana bultzatu eta gaixotasun hau duten haurren familiei laguntza emateko. Uxueren aitarekin izan da NOAA!, Goyo Martinekin alegia, lasterketaren eta gaixotasunaren nondik-norakoak ezagutzeko.

NOAUA! Hilaren 18an izango da II. Uxue Trail lasterketa solidarioa. Lehenengoak izugarritzko arrakasta izan zuen. Zer espero duzue aurtengoan?

Goyo Martin: Lehenengo Uxue Trail hartan jarrita geneuzkan asmoak betetzen badira oso eskertuta egongo gara. Urte hartan espero baino askoz jende gehiagok eman zuen izena, eta aurtengo izen-ematea 300 pertsonarentzat ireki beharrean 500entzat ireki dugu. Azken urtean jendeak ez zuen korri-



Uxue Trail lasterketaren lehen edizioan jende asko geratu zen partehartu ezinik. Plaza kopurua handitu egin dute.

GOYO MARTIN

“Pheland-McDermid gaixotasunari ikusgarritasuna ematea da gure helburua”

ka egiteko aukerarik izan, eta aurtengo izena eman nahi duten guztiek aukera hori izatea nahi dugu. Izen-ematean kanpoan geratu zen jendea ez zen

kanpoan geratu guk hala nahi izan genuelako, baizik eta lasterketak seguru batzuk zituelako eta horiekin bete behar genuelako. Aurtengo 500 plazara horiek beteketa balira izugarria izango litzateke.

Nola doa aurtengo izen-ematea?

200 pertsona baino gehiagok eman dute izena momentuz

(hilaren 2an, osteguna), aurrekoan baino askoz ere jende gehiago kontuan izanda lasterketa eguna oraindik nahiko urrun dagoela. Azken bi asteetan eman zuen jende gehienak izena urte hartan eta aurtengo ere hala izango dela uste dugu. Gure helburu nagusia gaixotasunari ikusgarritasuna ematea da, beraz, jende askok parte hartzea gustatuko litzazuke.

“Ikerketa sakon bat egiteak milioika euro eskatzen ditu”

NOAUA! Lasterketan jasotzen dena Pheland-McDermid Elkarteari emango diozue, ezta?

Elkartean dauden familia askok oraindik ezintasunak dituzte haurrari probak egin eta beharrezko terapiak jasotzeko. Dirua horretara bideratuko dugu eta ikerketara. Medikuek pare bat baditugu ikerketak egiten sindromea hobeto ezagutu eta ulertzeko Valentzian eta Frantzian. Guraso elkarte bat gara, eta guk eskaini dezakeguna oso-oso gutxi da. Ikerketa sakon bat

egiteak milioika euro eskatzen ditu, eta hori guk ezin dugu eman. Gobernuak egin behar du luketen zerbait da. Ikerketa orain zentratuta dago jada sortuta dauden sendagai pare batean, beste gaixotasun batzuk tratatzeko sortu direnak, eta Pheland-McDermid duten umeentzat ere erabilgarri izan daitekeen ikusteko. Gainontzeko hobekuntzak lan neurokognitiboetan egiten ari dira terapia egokiak aurkitzeko eta nutrigenomikan ere fokua jarrita daukagu. Oso pixkanaka egiten

ari diren hobekuntzak dira.

Hobekuntza horiek esanguratsuak dira haurrentzat?

Genetika nahiko zientzia indartsua da eta aurkikuntza handiak egiten dituzte, baina gureganaino ez da iristen. Haurrekin bektore biralak erabiltzea aztertzen ari dira, hau da, genetikoki mutatzeko posible den aztertzea, ez Pheland-McDermiden kasuan, baizik eta orokorrean gaixotasun genetikoetan. Gure haurren kasuan gen bat baino gehiagok jasan

dute mutazioa. Uxueren kasuan, 40 bat gen izan daitezke gaixotasunaren erantzule. Kasu horiek aztertzeko oraindik ez da nahiko aurrerapenik egin. Metafora moduan ulertzeko, auto txikiak kasuan zer gerta litekeen aztertzen ari dira, baina Uxueren kasuan autobus bat aztertu beharko lukete. Ikerketa nagusia bide horretatik doa, eta Guraso Elkartetik egiten ari garena psikomotritzitatean eta fisioterapietan oinarritzen da, batez ere.

Goyo Martin: “Gaixotasun arraroak beti izan dira medikuntzan ahaztutakoak”

NOAUA! 2019an izan ginen azkenekoz zurekin, Goyo. Orduan, 115 haur zeuden elkarrean. Zenbat kide dira gaur egun?

Goyo Martin: Espainian 180-190 haur daude. Urte askotako lanaren ondorioz, erreferentziazko elkarte bilakatu gara Hegoamerikan eta European. Gure taldean jende asko daukagu foroetan. Estatu Batuarrek diru gehiago dute ikerketa egiteko, baina gure elkarteak indar handia du eta gehiago mugitzen da.

Azken bi urte hauetan, pandemiaren ondorioz, gaixo asko kexatu dira Covid gaixotasunari baino ez zaiola erreparatu eta bestelako gaixotasun asko ahanzturan erori direla. Zuek ere hori sentitu duzue?

Ez, bereziki. Gu lehenagotik ere ahaztuta geunden. Gaixotasun arraroak beti izan gara medikuntzan ahaztutakoak. Beraz, azken bi urte hauetan ez dute besteetan baino ez ge-



Uxue Trail lasterketaren lehen edizioa 2019an ospatu zen. Eserita ageri da Uxue Martin, Pheland-McDermid gaixotasuna duen gazte usurbildarra.

GOYO MARTIN

“Erreferentziazko elkarte bilakatu gara Hegoamerikan eta European”

hiago ez gutxiago egin. Afrikan bizi eta koronabirusaren krisia

iritsiko dela esatea bezala da, jada krisian bizi dira, beraz, zer da datorren berrikuntza... Gure kasua ere halakoxea da. Medikuek ezin dute ezer egin guregatik ikerketak ez duelako fruitu nahikorik eman tratamendu berriak sortzeko. Euskadin behintzat horrela izan da,

gorabehera berezirik gabe. Ez nuke jakingo esaten hala izan den Valentzian edota Madrilén, esaterako. Orokorrean gehiago kexatzen dira gu baino osasun sistema dela eta.

II. Uxue Trail, ekainaren 18an

II. Uxue Trail mendi lasterketa ekainaren 18an larunbata egingo da, 9:00etan frontoitik. Parte hartzeko lau aukera ezberdin egongo dira:

- 20 kilometroko Uxue Trail luzea.
- 11,5 kilometroko Uxue Trail motza.
- 7,5 kilometroko Ipar Martxa.
- 5,5 kilometroko Uxue paseoa izenekoa.

Lasterketa amaieran opariak zozketatuko dituzte. Ekimean zuzenean parte hartu gabe ere, dortsal solidarioa erosi ahalko da. Izen ematea eta informazio gehiago, kronoak.com atarian.

“Uxuek hobekuntza handiak egin ditu”

NOAUA! Zein ezaugarri dituzte Pheland-McDermid duten umeek?

Azpidiagnostikatuta dagoen gaixotasun bat da. Izan ere, ume askok TA izaten dute, autismoa. Uxuek ez du halakorik, baina ume askok izaten dute. Ume askok autista diagnostikoa izaten dute, baina horietako asko Pheland-McDermid dira. Shank3 genearen faltak zehazten du haur batek Pheland-McDermid duela, besteak beste. Gen hau zuzenean lotuta dago autistei ere. Ezaugarri autistak izaten dituzte Pheland-McDermid duten haurrek. Gehienek ez dute ia hitzik egiten eta beste askok hitz bat ere ez dute esaten. Maila

kognitiboan atzerapen esanguratsua dute txiki-txikitatik. Maila psikomotrizean ere gehienek arazoak izaten dituzte. Aurpegian ere nabari zaizkie ezaugarri batzuk: kokotx puntaduna, esku handiagoak, sudur punta puztuagoa, belarri handiagoak... hauek oso ezaugarri orokorrak dira, eta denek ez dituzte ezaugarri guztiak betetzen.

Uxueren kasuan, eskuei erreparatuta antzeman daiteke esku handiak dituela, baina aurpegiz haur normal bat ematen du. Ezaugarri fisikoek pistak eman ditzakete, baina batez ere maila psikomotriz eta kognitiboan ematen den atzerapena da ezaugarri nagusia. Haur batzuek digestio arazoak izaten dituzte,

epilepsia ere bai, baina askoz ere maila txikiagoan. Ez lirateke gaixotasunaren ezaugarri nagusiak izango. Hala ere, gurasoren batek uste badu bere semeak edo alabak Pheland-McDermid izan dezakeela, lasai dei diezagula eta lagunduko diogu ahal dugun guztian profesionalekin kontaktuan jartzen eta abar. Gai nontzekoei guri gertatu zitzaiguna ekidin nahi diegu, bakar-bakarrik aurkitu eta nora jo ez dakitela egon.

Zer moduz dago Uxue?

Oso ondo dago, hobekuntza handiak egin ditu. Terapia asko probatu ditugu berarekin eta badoa pixkanaka aurrerapenak egiten. Arazoak ere badi-

tu, jakina, baina oso gustora gaude. Askok disfrutatzen du bizitzaz eta oso haur zorionsua da. Egia da adinarekin geroz eta kontzientzia gehiago duela eta batzuetan konturatzen da gauza batzuk ezin dituela egin. Frustrazio bat ere nabari zaio batzuetan komunikazio gaitasunari lotuta. Uxuek ez daki hitz egiten soilik aita, ama eta “agua” hitzak esaten ditu. Beraz, batzuetan zerbait esan nahi digu, baina ez da behar hori azaltzeko gai eta nabari zaio frustrazio hori. Sistema berriak probatzen ari gara komunikazio gaitasuna hobetu eta bide berriak aurkitzeko komunikazioa errazteko.

Kulturgunearen plazaratze arrakastatsua

Usurbilek duen kultur mugimendu bizi eta aberatsaren erakusleioa izan genuen Dema plaza ekainaren 5ean.

Hilabeteotan bideratzen aritu diren barne proze-

suan geldialdia egin eta jendartera zabaltzea erabaki zuten eraikitzen ari diren kulturgunea. "Performance" berezi baten bueltan aurkeztu zuten, ezagutza eta sortzaile

nahiz zaletuen kohesioa sustatu nahi zuten azoka berezian. Kulturgile anitz bildu zituen, bideratzen duten lanketa prozesua erakutsi asmo zuten estreinakoz antolaturiko

hitzorduak.

Ikusmin handia sortu zuen Usurbilgo bi diseinatzailearen arropak soinean jantzita herritarrek eskainitako moda desfile txalotuak.



Sortzaileen nahiz kultur eragileen lana gertutik ezagutzeko aukera izan zen aurreko asteburuan.



Azokaren inguruko argazki eta bideo irudi gehiago noaueus web orrialdean topatuko dituzue.

Ekainaren 14an gimnasia erritmikoko erakustaldia Oiardo kiroldegian

Ikasturtea amaitzean den honetan, gimnasia erritmikoko Tximeleta taldeak ikasturte amaierako erakustaldiaren berri eman du. Ekainaren 14an izango da 17:30etik aurrera. Garaipen baten ostean, inoiz baino indartsuago datoz taldeak eta urte osoan egindako lana erakutsi nahi diote herriari. Itxasne Telleria entrenatzailearekin izan da NOAUA!

NOAUA! Maiatzaren 21ean, Oiardo Kiroldegian antolatutako Tximeleta taldearen lehiaketan garaile izan zineten.

Itxasne Telleria: Tximeleta Taldeak urtero antolatzen duen lehiaketa da. Tximeleta Taldea Donostiako talde batzuek, Usurbilgoak, Oiartzungoak, Astigarragoak eta Beasaingoak osatzen dute. Kontua da talde gehienek ez daukatela azpiegitura egokirik gimnasia erritmikoa behar bezala lantzeko. Gehienek sabaia oso baxua dute, eta modu horretara ezin dituzte aparatuekin jaurtikeak entrenatu. Beste batzuek tapizik ere ez dute modu egoki batean mugitu ahal izateko. Guk zortea dugu Usurbilen altuera egokia eta tapizak badi-tugulako. Azpiegitura egokirik



Ekainaren 14an asteartea, arratsaldeko 17:30ean hasiko da erakustaldia. Bertan izango dira Tximeletako gimnastak.

ITXASNE TELLERIA

Tximeleta taldea Donostia, Oiartzun, Astigarraga, Beasain eta Usurbilgo kirolariek osatzen dute. "Guk zortea dugu Usurbilen altuera egokia eta tapizak badi-tugulako kiroldegian"

gabe entrenatzen duten umeak zuzenean lehiaketa ofizialetara eramanez gero, desberdintasun handiak antzematen dira egoki entrenatzen dutenekin alderatuta. Beraz, Tximeletaren lehiaketak taldeei lehiaketa ofi-

zioletan sartu baino lehen aukera ematen die proba bat egiteko. LH5ekoak izaten dira txikienak lehiaketetan parte hartzen, eta beraz, lehentxeago eta urte horretan lehiaketa honetan parte hartzen dute prestaketa modura LH6n lehiaketa ofizialetan parte hartzen hasteko.

Tximeleta Taldeko gehienek, beraz, ez dute behar bezala entrenatu eta lehiaketetan parte hartzeko aukerarik.

B eta C mailak egoten dira lehiaketa ofizialetan. Azken maila hori azpiegitura egokirik ez

dutenei zuzendutakoa izaten da gehienbat edota astean pare bat orduz baino entrenatu ezin duten gimnastentzat. Aurten, Usurbilgo LH6ko taldea C lehiaketan parte hartzen izan da eta 30 talde ziren guztira. Nahiko ohikoa da egoera horietan entrenatzen duten gimnasten egoera. Usurbildarrek 13. egin zuten lehiaketa horretan. Lehen itzulian 10. egin zuten eta bigarrenean, 13; beraz, amaierako balantzean, 13. postua erdietsi zuten. Datorren urtean gimnasta horiek taldean jarraitzen badiute, B mailan sartuko ditugu.

"Oso pozik gaude aurten lortutako emaitzekin"

NOAUA! Usurbilen garaile izan zineten, baina zein adinetako taldeek hartu zuten parte bertan?

Itxasne Telleria: LH3 eta LH4ko taldeak uztaiarekin aritu ziren. Maila horietan erakustaldia eskaini zuten, ez da lehiaketarik antolatzen, besterik gabe urtean zehar eginiko lana erakutsi nahi izaten dute. LH5 eta

LH6 mailakoak izan ziren lehiatu zirenak lehen postuak lortzeko. LH5ekoak mazoekin aritu ziren eta LH6koak xingolarekin. Ondoren, dantza lirikoa egin zuten horretan aritzen diren neska batzuek. Gurekin izan genituen Malen Izeta eta Irati Telleria gimnastak ere, joan zen urtean federatu zirenak. Espainiako txapelketan parte hartu dute

biek eta Usurbilen haien lana ikusteko aukera izan genuen. Oso polita izan zen, ikaragarria.

Zein mailatako taldeak irabazi zuten?

LH5eko taldearentzat lehen lehiaketa zen eta oso urduri zeuden. Maila horretan, zortzi taldek parte hartu zuten. Askok entrenatu dugu eta lehiaketan ezinhobe egin

zuten dantza; nik esango nuke sekula baino hobeto atera zitzaizela. Maila orokorra ikusita eta gure dantza ikusita nahiko argi neukan urrea gurean gertutuko zela. Hirugarren egin zuten Pio Barojako neskek, bigarren Zurriola Ikastolakoe eta Usurbil garaile. Oso pozik gaude lortutako emaitzarekin.

Itxasne Telleria: “Oso gustura ari naiz entrenatzaile lanetan”

NOAUA! Usurbilgo kiroldegiaz gain, ez dago beste kiroldegi egokirik?

Itxasne Telleria: Oiartzungo taldearen kiroldegia ere egokia da entrenatu eta lehiaketak antolatzeke. Donostiako taldeen artean, Karmelo Ikastetxean daukate egoerarik onena. Tapiz onik ez daukate, baina nahiko altua da sabaia eta instalazio egokienak ez badira ere, nahiko egokiak dira entrenatu ahal izateko. Gaintzekoek eskolako instalazioetan entrenatzen dute eta horiek ez daude gimnasia erritmikoa egiteko prestatuta.

Ikasturte amaieran urtero egi-ten da erakustaldia kiroldegian. Aurtengoa noiz izango da?

Ekainaren 14an izango da eta 17:30ean hasiko da. Ordu bate inguruko saioa izango da. Aurten Orioko taldeak eta Pio Barojakoak izango ditugu gurekin, euren herrietan egiteko aukerarik ez dutelako izango. Gimnasiako dantzak ikusteko aukera eskainiko dugu 5 urteko haurretatik hasita taldeko zaharrenak diren Izadi eta Alazne bitarte. Azken hauek 17-18 urte dituzte. Maila bakoitzak bere dantza erakutsiko du eta bakarkako bost gimnasta izango ditugu. Ondoren, dantza modernoa ere egingo dugu urtero legez. Amaitzeko, Tximelleta Taldeak euskara bultzatzea helburu duenez, Goazeneko abesti batekin ere dantza egingo dugu guztiok batera.



“Gimnasta gehienek jarraitzeko asmoa dutela esan didate”.

EKAINAREN 14AN OIARDON

“Ez da inolako sarrerarik beharko kiroldegira sartzeko. Edonor anima daiteke saioa ikustera”

Usurbilgo taldean zenbat gimnasta dituzue?

HH5eko 8 neska dauzkagu, LH1eko 5, LH3ko bat, LH4ko 11, LH5eko 6, LH6ko 6 eta bakarka aritzen diren Izadi eta Alazne.

Kiroldegira sartzeko gonbidapena beharko da edo sarrera irekita egongo da edonorentzat?

Ez da inolako sarrerarik beharko kiroldegira sartzeko. Edonor anima daiteke saioa ikustera inolako arazorik gabe.

Datorren urtean ere Usurbilgo taldea entrenatzen jarraituko duzu?

Ez dakit ziur esaten. Nik aukera badaukat jarraituko dut.

Oso gustura nabil lan honetan, baina ikasketak amaitu berri ditut eta ez dakit lan aukerarik suertatuko zaidan. Gimnasta gehienek jarraitzeko asmoa dutela esan didate haiek ere oso pozik daudelako. Jarraituko ez duten horiek ez dute gimnasia utziko jada gustora ez daudelako, baizik eta beste kirol batzuetako entrenamenduak izango dituztelako ordu berean. LH6ko neskek arazoak izango dituzte datorren urtean, futboleko entrenamenduak egun eta ordu berean izango dituztelako. Entrenatzailearekin adostu nahian dabilta asteen bi entrenamendu egin beharrean bakarrik egiteko futboleko eta modu horretara, bi kirolak egiteko aukera izango lukete. Ni ere saiatzen ari naiz ordutegi aldaketak proposatuz taldeari ea gaintzeko kirolekin bateragarri egin daitekeen gure kirola ere. Pena da. Bost urterekin nirekin gimnasian hasi ziren eta orain 12 dituzten honetan utzi beharra tristea izango litzateke.

Pilota partidak Udaberri Txapelketa

Ekainak 10 ostirala, 18:30

■ Infantilak 1.maila:
Pagazpe.Zazpituurri

Usurbilgo Txapelketa

Ekainak 10 ostirala, 19:30

■ Senior final laurdenak:
Urkizu-Ortiz
De La Fuente-Azpiroz
Apezetxea-Olaetxea
Landa-Lazkoz

Usurbilgo Txapelketa

Ekainak 12 igandea, 11:00

■ Infantilak:
Behar Zana-Oiarpe
Andoain-Azkoiti
Tolosa-Pagazpe/Hernani
Añorga-Hernani/Pagazpe

Buruntzaldeko Kultur agenda bateratua

“Kultur eskaintza oparora bateratu eta herritarren eskura jarritzeko”, kultur agenda bateratua sortu dute Buruntzaldeko udalek euskara.buruntzaldea.eus atariko “Euskaraz” atalean. Egun dituzten Twitter eta Facebook kontuez gain, aurrerantzean Telegram kanala (“Buruntzaldeko kultur agenda”) eta hileroko buletin elektronikoa herritarren eskura jarriko dute. Harpidetzea sarritu dute, zozketa eta lehiaketen bidez. “Parte-hartzaile guztien artean 24 sarrera banatuko ditugu ekainaren 9an: ekainaren 12an Usurbilen izango den ‘Trapu zikinak’ antzezlanerako sei gonbidapen bikoitz, eta ekainaren 17an Basteron ‘Neomak’ taldearen kontzerturako sei sarrera bikoitz”.



Kima

MASAJE LEKUA

·KIROL MASAJEA · MASAJE TERAPEUTIKOA

Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97



BONEX
REHABILITACIONES S.L.

**ERAIKINAK BIRGAITZEKO
ETA HOBEKUNTZA ENERGETIKOA
LORTZEKO SOLUZIOAK**

- * Impermeabilizazioak
- * Isolamendu termikoa
- * Teillatuak
- * Mantenimendua
- * Fatxadak

Zubiaurrenea Kalea 3, 20170
Usurbil | Tlf: 625077916
info@bonex.es

Ikasturte agurrerako, kantu afaria

Ekainaren 17an kantu afari baten bueltan agurtuko du ezohiko ikasturte hau Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Plazarako itzuleraz, bi urteotako etenaldiaz mintzatu da NOAUA!rekin, aipatu bilgunekeo kide Mikel Usabiaga.

NOAUA! Bi urteotan abestu ezinik, nolakoa izan da itzulera?

Mikel Usabiaga: Aurreko urtean izan genuen elkartzeko labur bat. Hiruzpalau aldiz bildu ginen. Baina pandemia berriaz gogortzen hasi eta jendearen arazoizko beldurrarekin atzera egin genuen. Poliki hasi gara berriaz, konfiantza hartzen. Itzulerarekin pozik eta kantatzeko gogoz.

Beharra bazen.

Kolektibotasun horren beharra. Herria kolektibitateetan banatua egoteak badu bere garrantzia. Egun dugun indibidualismo itxi honen aurrean, estimatzekoa da jendea batzea eta elkarrekin ekintza bat egitea. Bestetik, herriaren aurrean ekarpen txiki bat egitea, bai euskararen eta kantu aldetik. Giroa sortzetik aparte, gogoratuz. Zenbat urte da ba, Antonio Pello, Mateo, Mikel Ezkerra... baxoerdi baten bueltan kantuak kontatuz, kantatu egiten zutela. Hitza bukatzen zitzairenean kantuan hasten ziren. Horren grabazioak baditugu. Horren berreskurapen bat egin beharko genukeela iruditzen zait.

Helburua kantuzaleatasun hori



Ekainaren 17an ostirala, Patri jatetxean batuko dira.

MIKEL USABIAGA

"Jende asko dago hasiko litzatekeena baina ez dena ausartzen. Edonori gaude irekita; gozatu kantuan gurekin batera"

bizitzia da ezta?

Ez hori bakarrik. Baita ere badu hizkuntzarekiko lotura bat. Kantuaren bidez euskaldunon historia errepasa daiteke bere letren bidez. Garrantzitsua da transmisio hori egitea. Aldarrikatu nahi dugu oso modan jartzen ari den kilometro zeroa elikagaiak, kilometro zeroa hizkuntzan izan daitezela eta gure taberneko kilometro zeroa janariak ez ezik kilometro zeroa kantuak ere jar ditzatela.

Behartutako etenaldia bizi izan duzue. Abestea debekatua egon da.

Kantatzea debekatua egoteaz

gain, gerora ere pixka bat neurriak lasaitu zirenean musukoa jantzita kantatu behar zen. Kantuak asko galtzen du musukoa jantzita, ez baita ikusten bestearen adierazpena. Gozagarria da bestea nola ari den kantatzen ikustea.

Astelehenero biltzen zarete Agerialden.

Kantu berriak ikasiz eta egileak ezagutuz ere bai. Oraindik adibidez, Anje Duhalde ez dugu aztertu. Egin ditugu monografikoak Artzeri, Mikel Laboari, Imanol Urbietari edota Xabier Leteri buruzkoak. Oraindik hainbat autore ditugu bakarka bere kantuak eta kantu bizitza aztertzeko.

Denetarik abesten entzun zaituztegu urteotan.

Liburuxkan 300 kantu jartzerakoan, sartu izan ditugu haur kantak, maitasun eta heriotza kantak, gerrari eta jaiei buruzkoak. Umorea, espetxea

edo tradizioko kantuak. Guk jendea geure kantuak, euskal kantuak abestea nahi dugu eta hori bizitzea. Letren eta kantuen bidez hainbat gauza ikas ditzakegu.

Nabarmena da urteotan plazan jorratu duzuen ibilbidea. Taldeak ze indarra hartu duen.

Ikusten da garbi, ohitura hau pixka bat landuta, jendea beldurrik gabe ari da kantatzen. Hasiera batean ikusten gintuzten gure taldean zeharbegiratuekin eta orduan ahotsa ere jaitsi egiten zen. Orain beste askatsun batekin kantatzen du jendeak eta hori lorpen handia izan da.

Ahalduntze bat eman da ezta?

Ahots bakarrean hasita, bada bigarren ahotsa egitera ohitu direnak. Kantatzearan ohiturak dakarren ondorio on bat. Humanizantea da. Sigla, iritzien gainetik gaude. Elkartzeko gaituena kantua da. Herrian dauden hainbat ohitura zahar eta ekimenetan parte hartzen dugu.

Duela hamahiru urtetik.

2009an, atez atekoarekin batera jaio ginen. Jende asko dago hasiko litzatekeena baina ez dena ausartzen. Jendeak burutik kendu dezala kantatzeko balio ez duen iritzi hori. Kantatzeko edonork balio dugu eta gu talde gisa hor sartzen gara. Edonori gaude irekita, gure taldean sartu eta gozatu kantuan gurekin batera.

Kantu afarirako izena emateko deia

Ikasturtea afari baten bueltan abestuz borobildu asmo du Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Ekainaren 17an, 20:30ean hasita Patri jatetxean. Honako menua dastatu ahal-ko da: urdaiazpiko-kroketak;

entsalada, gazta urdina eta intxaurrekin; etxean egindako bakailao bricka; entrekota piper gorri eta patata frijituekin; laranja-budina txokolate bero eta izozkiarekin; kafea/infusioa; urteko ardoa/sagardoa.

Afaritarako izena bide honetatik eman daiteke: 688 69 03 61 (Iban). Kontuan hartzeko pare bat ohar: kide kopuru mugatua izango du otorduak. Bestalde, kantu-liburuxka eraman. Afarian bertan edota aurrez,

NOAUA!-ren egoitzan eskuratu ahal-ko da. Hitzordua honekin borobilduko du ikasturtea Usurbilgo Euskal Kantu Taldeak. Ekainaren 13an azken entsegua, 18:00etan Agerialdeko musika gelan.

Santueneako Auzo Planaren aurkezpena

Urtebeteko parte hartze prozesuan, Santuenea “auzoa epe ertainean nola eraldatzea nahiko lukeen landu dute”, espazioari, hiritikintzari, gai sozial eta komunitarioei dagokienean, “besteak beste, espazio publikoa, mugikortasuna, zaintza eta energia gaiak landuta”. Orain arteko diagnosiaren lanketa Auzo Planean bildu eta aurkeztera doaz, ostiral honetan, ekainaren 10ean 19:30ean hasita Santueneako frontoian.



Orain arte egindako lanaren berri emango dute.

Ekitaldian parte hartuko dute prozesua bideratu duten Santuenea Elkarlanean talde eragileko kideek baita Hiritik At kooperatibako kideek ere. “Epe luzera begira, auzoaren eraldaketa nolakoa izatea nahi duten adostu dute”. Dokumentuaren aurkezpenean ekarpenak egiteko aukera egongo da. Aurrera begira, Santuenea Elkarlanean talde eragilea indartu asmo dute, “besteak beste, planaren jarraipena egin eta bertan definitutako hobekuntzak egingo direla bermatzeko, beti ere, Usurbilgo Udalarekin elkarlanean”.

Uren saneamendu lanengatik, erriberako bidea itxita

Aste hasieratik eta datozen sei

UREN SANEAMENDUA “Datozen sei hilabeteetan itxita egongo da Santuenea eta Txokoalde lotzen dituen erriberako bidea, oinezkoentzat nahiz ibilgailuentzat”

hilabeteetan itxita egongo da Santuenea Txokoalderekin erribera aldetik lotzen duen bidea oinezko nahiz ibilgailuentzat, “arriskuak saihesteko”. Bertako bizilagunek nahiz baratzeak dituztenek soilik igaro ahalko dute eremu horretatik, Udaletik ohartarazi dutenez. Gainerakoek San Estebandik barrena egin beharko dute joan-etorria. “Txokoalde eta Santuenea lotzen dituen saneamenduaren ko-

lektorea gauzatzen hasiko dira”, berri eman du Usurbilgo Udalak. Bi zatitan bideratu asmo dituzte lanok; “Txokoaldetik gertuen dagoena lehenengo, eta Santuenetik gertuen dagoena, ondoren”. Lanen lehen fasean, Txokoalden Hondakinen Uren Ponpa Estazioa Osinaldekoarekin lotu eta bertara garraiatuko dituzte Santueneako eta Txokoaldeko isuriak. Bigarren fasean “Aginaga kaxkoko isuriak jasoko dira, eta Aginaga HUPE berritik Txokoaldera eramango dira, Oria ibaia gurutzatuta”. Azkenik, “Aginagako erriberan kolektore generala egingo dute, eta kolektore horri hainbat hodi jarriko dizkiote gero udalak egingo duen proiektuaren bitartez etxebizitzetara

konektatu eta ur zikinak jasotzeko”.

Eremu horretan guztian zehar, “1.100 metro luze hartuko ditu obrak: 400 metro herribidea jarraituz eta beste 700 lantza eremua hondeatuz”. Obra osoaren kostua, 5,4 miloi eurokoa da. 2021eko maiatzean, Añarbek eta URAk sinatutako hitzarmenean du jatorria egitasmo honek. “Hitzarmenaren arabera, Urak-ek kostuen %60 hartuko du bere gain, baita kontratazioa eta obra zuzendaritza ere. Añarbek, berriz, gainerakoa finantzatuko du: %40. Urte amaieran hasi ziren lanean, eta haien arabera, 22 hilabete beharko dituzte dena amaitzeko”.

Auzolanerako deia Andatzan

Aurreikusi baino lan gehiago dago Andatzan, lubakiak berreskuratzeko. Hala adierazi dute oroimen historikoaren aldeko lanketan ari den Usurbil 1936 elkartetik. Auzolanerako bolondresak behar dituzte, astelehenetik ostiralera (9:30-14:00-15:00-18:00) lanean jarduteko. Interesdunek bideotatik eman dezakete izena: usurbil1936@gmail /616 482 521.

Euskaraldira aktiboki batzeko deia

Ariketaren eragina handitzea. Hortxe kokatua du Euskaraldia-ren bueltan lanean den taldeak bidean datorren hirugarren edizioarako erronka nagusia. Batzordea osatzeko maiatzaren 31n Potxoenean egin zuten lehen bilera. Atzera begira jarrita, aurreko bi edizioak ekarri zituzten gogora. Hirugarrenera begira, aurrekoaren ildo bereetik bideratuko da, azaroaren 18tik abenduaren 2ra. Batetik, norbanakoek parte hartzeko

aukera izango dute Ahobizi edo Belarriprest moduan. Eta ariketa entitateen bidez kolektiboki egiteko aukera ere izango da. Gogoan izan entitatetzat jo daitezke lagun taldeak, lantegiak, erakundeak, talde, elkar-te edota eragileak. Haiantzat guztientzat izen emateko epea zabaldu da, baina aipatu moduan, helburu nagusi batekin; ez atxikimendu bila, euskara ahotan hartzeko konpromisoa gauzatzea sustatzeko baizik.



Maiatzaren 31n egin zen lehen bilera Potxoenean.

Ekaineko horoskopoa

Hitzak: Barretartia. Irudiak: Ainara Azpiazu Aduriz Axi.

Puntapaxeko sorginaren EROskopoa

**ARIES**

Azterketa garaia gogorra da, baina azken ahalegina egin behar duzu.

Hileko aholkua: Mugikorra alde batera utzi eta hasi zaitez ikasten behingoz, kontxo!

**CANCER**

Iritsi da hainbeste itxaroten ari zinen aukera. Zure bizitza ez da berdina izango hemen-dik aurrera.

Hileko aholkua: Azkenean festetan buruhaundi bezala aterako zara!

**LIBRA**

Beste ikasturte bat bukatuko da eta beste urte batez haurren zaintza buruko-min bilakatuko zaizu.

Hileko aholkua: Pentsatu al duzu inoiz lanera zurekin eramatea?

**CAPRICORNIUS**

Oporrekin amesten ari zara, baina ez dakizu nora joan, hondartzara edo mendira.

Hileko aholkua: Eta zergatik ez zoaz bietara?

**TAURUS**

Dagoeneko hondartza denboraldia hasi da eta kezkatuta zaude bikini operazioagatik.

Hileko aholkua: Ez kezkatu, hondartzara joateko behar duzun bakarra zure gorputza da, den bezalakoa!

**LEO**

Aurten bai; aurten festa guztiak behar diren bezala ospatzeko moduan izango zara.

Hileko aholkua: Noizean behin etxetik pasatzea ere ez zaizu gaizki etorriko...

**SCORPIUS**

Izarrak, planetak eta ilargia lerrokatuta izango dituzu aste hauetan.

Hileko aholkua: Ez dakit zer esan nahi duen horrek, baina eguzkitako krema eman beti, badaezpada ere.

**AQUARIUS**

Erleak bezala, lorez lore ibiliko zara hilabete honetan maitasun kontuetan.

Hileko aholkua: Baina kontuz, badakizu bat baino gehiago polenari alergia diotela eta!

**GEMINI**

Dagoeneko zure urtebetetze egunak ez dizu hainbesteko ilusiorik pizten.

Hileko aholkua: Gozatu; inoiz ez zara gaur baino gazteago izango!

**VIRGO**


Maitasuna ate joka izango duzu hilabete honetan eta ezin duzu aukerari ihes egiterik utzi.

Hileko aholkua: Ea behingogatik indirektak harrapatzen dituzun!

**SAGITARIUS**

Zure bizitzari zentzua emango dion erronka aurkituko duzu datozen egunetan.

Hileko aholkua: Pentsatu al duzu inoiz Uxue trailen ateratzea?

**PISCIS**

Bada garaia maitasun keinu handi bat egin dezazun.

Hileko aholkua: Emaiozu behingoz ogi koxkorra; horrela ziur jakingo du maite duzula!

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
•eguneko menua •asteburuko menua
•karta •oilasko erreak, hamburgeresak..
paellak enkarguz!
☎ 619 40 91 98
Zubiaurrenea 6, Usurbil. Tel: 943 71 38 03

ERAMATEKO!!!
•EGUNEKO MENUA
•KARTA
ARTZABAL (ESKANEATU QR KODEA IKUSTEKO)
BASERRIA • JATETXEA
www.artzabaljatetxea.com 943 36 91 39

EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL
943 361182

ETXEBIZITZA**Salgai**

Etxebizitza erosi nahi dut Usurbilen. 623467316.

Pisua salgai Munalurra kalean. 3 gela, komuna, sukalde eta egongela handiak, garajea, trastelekua, balkoia eta terraza. 688 710 916.

Alokairuan

Pisu bat epe luzerako alokatu nahi dugun bikotea gara. Lan egonkorrekin. 611621181.

Alokairuan hartzeko etxe baten bila nabil Usurbilen. 622925562

Alokairuko pisu batean gela bat behar dut. Urgentia da, urriaren 30erako beharko nuke: 605 142 943.

Neska kaudimenduna, maskotak onartzen dituen etxebizitza edo gela baten bila dabil Usurbilen. Kontratua eta errolatzea beharrezkoa. Patricia 622396941.

MOTORRA**Salmenta,****garajeak**

Aginagan, Elutx kalean 30 m² garaje itxi bat salgai. 629460966

Marradun garaje plaza bat alokatzen da Kale Nagusian, Bizkarren. 687 406 209

Garaje marra bat salgai Punta-pax kalean, BM parean, 18 m². 18:000 euro. 687 348 223.

Ezinduentzako motorra salgai. 2018ko abuztuko motorra, gutxi erabilia. 625701616.

LANPOSTUAK**Lan eskaintzak**

Zerbitzaria behar dugu aste-buruetan, 12:00-19:00 artean lan egiteko Olarrondo jatetxean. 626 686 036

Santuenean adineko pertsona bat zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona euskalduna behar

da. Astelehenetik ostiralera, goiz eta arratsalde, eta larunbatean goizez. Guztira 38 orduko lan astea. Adinekoak zaintzeko titulua izatea baloratuko da. Interesatuok deitu 652728446 zenbakira.

Guria Tabernan sukaldari laguntzailea behar da asteburuetan lan egiteko. 677 20 87 44

Saizar Sagardotegian zerbitzaria behar da asteburuetarako, ostiral iluntzetik igande arratsaldera arte lan egiteko. 660788832.

Garbitzailea behar da Aginaga sagardotegian goizez lan egiteko. 943 366 710.

Zerbitzaria behar da Atxega jatetxean. 666 671 444

Zaintzaile bat behar dugu, egunezko lau ordu, Eusko Jaurritzairen zaharrak zaintzeko titulua duena eta euskalduna dena. 943 000 333.

Zerbitzaria behar da Artzabal-en. 3 astetik behin asteburua jai. 30 orduko lanaldia. 943 36 91 39.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Umeak zaintzeko prest dagoen gazte euskalduna. Jada umeekin esperientzia badaukat. Interesatuak: 688 73 43 44

Margoketa lanetan, altzariak zaharberritzen 30 urteko esperientzia. 626 10 70 76.

Erizain laguntzailea naiz eta pertsona helduak zaintzeko edo garbiketarako lanak egiteko lan bila nabil. Orduka, gauak edo astebukaerak interna moduan aritzeko disponibilitatea daukat. 672 587 671

Umeak zaintzeko prest. 695 184179/aneseoane@gmail.com

Hotel, jatetxe, soziedade edo etxeetako garbiketa lanak egite-

ko prest: 671763558

Adinekoak zaintzen esperientzia eta gomendioak ditut. Interesatuok idatzi edo deitu hona. jaquecamilo_1230@hotmail.com / 671 199 489

Goizetan bulegoak eta etxeak garbitzeko, etxeko lanak edo haurrak zaintzeko eskaintzen naiz. Erreferentzia oso onak daukat. 688 715 958

Emakume arduratsua orduka edo egun osoz, etxeko lanetan edo helduen zaintzan aritzeko prest. 604 246 436

BESTELAKOAK

San Estebanen (Zabale inguruan) betaurreko graduatu batzuk aurkitu ditut. Galdu dituenak Udaltzainetan dauzka jasotzeko.

Txerriak salgai. Apote bat eta 9 zerrama dauzagu salgai. 6/7 hilabetetako bost txerrikume ere bai. 607 668 603 (Joxe Cruz)

**Zorionak bikote!**

Pozik ospatuko dugu zuen urtebetetzea. Maite zaituztegu.

**Zorionak Amets! Igandean**

5 urte beteko dituzu! Txokolatezko 5 muxu handi handi familia osoaren partez.



Oriarten batxilergo ikasketak amaitu dituzten usurbildarren graduazio eguneko irudia. **Zorionak!**

Heriotzak

Rita Galarraga Murua
Maiatzaren 25ean
hil zen,
89 urterekin

**Heriotzak**

Jose Luis Bereziartua Zubizarreta
Maiatzaren 28an
hil zen,
69 urterekin

**Heriotzak**

Andone Segurola Salsamendi
Maiatzaren 30ean
hil zen,
87 urterekin

**Heriotzak**

Mari Carmen Bustelo Gil
Maiatzaren 31n
hil zen,
69 urterekin



Goardiako farmaziak

Osteguna 09	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 10	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 11	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 12	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Astelehena 13	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32. Lasarte
Asteartea 14	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Asteazkena 15	GIL MARTIN	Kale Nagusia 24. Lasarte

Osteguna 16	ACHA-ORBEA	Hipodromo etorbidea, 6. Lasarte
Ostirala 17	LASA SUQUIA	Kale Nagusia 42, Lasarte
Larunbata 18	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte
Igandea 19	URBISTONDO	San Franzisko 1. Lasarte

LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00-13:30

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
GOMEZ BRAVO, MARINA
Kale Nagusia, 14 Hernani
943 55 48 92

Gainontzeko datak www.cofgipuzkoa.com web orrian dituzue ikusgai.

Agenda ekaina

10 ostirala

- **UdaFest Zubietan.** 16:45ean hasita, erakusketak, patata tortila txapelketa, afaria eta "gamasunoak".
- **Ikastola Eguna.** 18:00 Txokolate jana Askatasuna plazan. Segidan, Dj GorkaMendi.

11 larunbata

- **Ikastola Eguna.** 09:00 Esnadeia. 09:30-12:30 LH eta DBH-koen jokoak. 12:00 HHkoen kantu eta dantza saioa. 14:00 Bazkaria frontoian. Ondoren, mus txapelketa. 17:00-19:00 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.

12 igandea

- **Ikastola Eguna.** Lore-More konpainiaren "Trapu zikinak" antzezlanak 19:00etan Sute-gin.

Ikastola Eguna ospatzeko garaia

Ikastola Egunari begira biziko dugun asteburua hemen da, ekintza anitzekin.

Ekainak 9, osteguna

- 11:00 1936ko gerrari buruzko memoria historikoaren lanketa.

Ekainak 10, ostirala

- 18:00 Txokolate jana Askatasuna plazan.
- 19:00-21:00 Dj Gorkamendi.

Ekainak 11, larunbata

- 09:00 Esnadeia txistulariekin.
- 09:30-12:30 LH eta DBH-koen jolasak.
- 12:00-12:30 HHkoen kantu eta dantza saioa Mikel Laboa plazan.
- 14:00 Bazkaria frontoian.
- Ondoren, mus txapelketa.
- 17:00-19:00 Ostolaza eta Narbaiza trikitilariak.



Asteburu osoan luzatuko da jai egitaraua.

kitilariak.

Ekainak 12, igandea

- 19:00 Lore-More konpainiaren "Trapu zikinak" antzezlanak Sute-giko auditorioan. Sarrerak: usurbilkultura.eus

Antolatzaileak: Udarregi Ikastola (antzezlanak Udalbiltza eta Usurbilgo Udala-ekin lankidetzan).

Datozenak

Ikasturtea agurtzeko, ZumartEguna

Aurreko urteetan aste bat baliatzen zuten ikasturtea agurtzeko. Egunpasa antolatutako aurtengoan herriko musika eskolak; "ZumartEguna" ekainaren 18an. "Egun guztian zehar Musika eskolako ikasleak eta irakasleak herriko leku desberdinetan arituko dira ikasturtean egindako lana azaldu eta denon gozamenerako musika lau haizetara zabaltzen".

Ekainak 18, larunbata

- 11:00 Albokako ikasleen kalejira Zumartetik abiatuta. Kontzertuak, Zumarteko sarrerako plaza txoan orduotan: 11:45/12:15/12:45.
- 17:30 Trikitixa + pandero + haize + perkusioko ikasleen kalejira frontoitik abiatuta. Kontzertuak frontoian orduotan: 18:30/19:30/20:30.
- Antolatzailea: Zumarte Musika Eskola.

UdaFest ekimen zikloaren amaiera Zubietan

Ikasturtea agurtzeko ospakizun aste betean dira Zubietan, "UdaFest" ekimenarekin.

Ekainak 9, osteguna

- 16:45 KontuKantoi ipuin kontaketa saioa, Bea Egizabalen eskutik. Informazio gehiago: kontukantoi.eus

Ekainak 10, ostirala

- UdaFest ekimen astearen baitan: eskolaz kanpoko ekintzei lotutako erakusketak; patata tortila lehiaketa; afaria; "gamasunoak".
- Antolatzailea: Zubietako Guraso Elkarteak.

Hitzaldi-tailerra, sexu aniztasunaz

Udalak antolatuta, "Sexu aniztasuna herrietan: eta Usurbilen zer?" hitzaldi-tailerra ekainaren 22an 17:30-19:30 artean Potxoenean. Hiruki Larroxa kooperatibaren eskutik.



Zubiaurrenea 8
943 370 008



Zubiaurrenea, nº2
943 36 55 81
20170 Usurbil



633 36 22 33
erreka-txiki 1, USURBIL



943 360 321
publizitatea@noaua.eus

Eskertze-gutuna, eskari-gutuna, salaketa-gutuna, erantzun-gutuna,
aldarrikapen-gutuna, kexa-gutuna...

Idatzi zure gutuna eta bidali
erredakzioa@noaia.eus helbidera!



NOAIA aldizkaria, usurbildarren zerbitzura

Aisialdia giro alai eta dibertigarrian euskaraz igarotzeko aukera



udajolas 2022

udaleku irekiak

Udajolaseko guraso bilera

ekainaren 21an (asteartea)

izango da **Sutegin**,

arratsaldeko **17.00etan** (HH)

arratsaldeko **18:00tan** (LH)



Usteirgo Urdala

Edertu zaitez!

new
ESTETIKA

**FOTODEPILAZIOA
DIDO LASERRAKIN**



TARIFA FINKOA
PREZIOAK ZURE ESKURA!
KONPROMISORIK GABE
INFORMA ZAITEZI!

Munalurra 2, Usurbil 943 571 680

Ane
ILEAPAINDEGIA

Artzabal

**JUBILATUENTZAT
AUKERA ONENA**

Artzabal baserria 688 75 96 96

**secretos™
del agua**

INTZA
ILEAPAINDEGIA
ESTETIKA ZENTROA

*osasungarriak eta
kimikarik gabe*

Eguerdian irekita! Nagusia 8, Usurbil - Tel: 943 36 36 41

Elexpe
ileapaindegia

- Betileen tintaketa eta permanentea
- Estetika • Tatuaiak
- Zutikako eta etzandako solarium-a

Muna Lurra 12, Usurbil • 943 370 462

**GOLDWELL
ELUMEN**

ileapaindegia

**BIOLOGO BATEK
MIKROSKOPIOZ
EGINDAKO BURU-AZAL
ETA ILEAREN AZTERKETA**

KONTSULTA DOAN!

Zubiaurrenea 4, Usurbil • 943 361 951